


BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
572. zkia.
XIV. urtea
2006ko maiatzaren 19a


## Iban Zubiaurre, futbolaria

# «Negar asko egin dut bakardadean»

[ LUZEZABAL ] FELIX LODOSO • [ BERBETAN ] AMAIA NOGUERO

# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Zurgintza eta Altzarigintza | Goi Mailako eta Erdi Mailako zikloak

# Hasi zure etorkizuna gaurtik eraikitzen!

%90-ak ikasketak bukatutakoan lana aurkitzen du



Euskarazko irakaskuntza ofiziala eskaintzen dizugu





Enpresetan praktikak egiteko aukera izango duzu



- **EKAINAREN 1etik-7ra AURRE MATRIKULAZIO EPEA**
- **EKAINAREN 30etik UZTAILAREN 6ra MATRIKULAZIO EPEA**

MAIATZAK 25 eta 27an ATE IREKI JARDUNALDIAK

1959tik Urola Lanbide Heziketa

**UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA**
Alamira Auzoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel 943 852 174
azkoitia@urola.org / www.urola.org



# ZOZOAK BELEARI...



## AITZOL GARMENDIA

Sare,

Gure berba orri hauetan agertzeko aukera eskertuz hasi beharko gaitun lehenik eta behin, ez zain iruditzen?

Herritarren aurrean gure esana plazaratzeak koloreak aterako ez dizkigun konbentzimenduz. Aulkitxotik atera berritan, aurrekoek utzitako lekua ganoraz betetzekotan gainera.

Eta ohartu orduko hara non hika ari natzaizun, Sare. Ikastolan gainditutako zuka batuan jefe ginelakoan kalean lasai ibiltzen gaitun, elgoibartar batua gure inguruan entzuten. Baina tarteka jun zan aitxitxan berba haiek oraindik ere oihartzun eitxen jaen belarri puntan. Euskera hark bajaukan beretasun propixua! Guk darabilgun honi ezin jaonat aurkitu haren traza handirik ostera. Deskafeinatu egin don denborian poderioz elgoibartarron hizkeria. Globalizaziua ote? Normalizazioa beharbada? Bietako bat bera ere ez ziur asko...

Atrebentzia handia izango dun beharbada jauzi bikoitz batekin estrenatzea eta baturanzko hika honetan utziko dinat saiakera hau, hasteko bada ere.

Lerro hauek bigarren batez irakurri ostean ganorazko ezer esan ez dudala iruditzen zaidan. Bestalde, hik hitz-aspertu honi mami eta kolore piskat ematen asmatuko dun eta horren esperoan agurtu beharko haut datorren hilerarte...

**[ «Deskafeinatu egin don elgoibartarron hikeria» ]**

AITZOL

**[ «Deskafeinatua goxoagoa ateratzen zaigu» ]**

SARE

## SARE GURRUTXAGA

Iluntzion Aitzol:

Usoak mezulari ziren garaiak ihes egin ditek antza, eta orain zozoak ekartzen omen ditik jardunak e-mail birtartez. Aspaldiko lagunen jarduna gainera; gauzak ezer gutxi aldatu dituk, ez duk?

Hikaz hasi duk erretolika eta nolabait lasaitasun dosi bat ematen zidak horrek paper txuri honekiko birjintasuna hausten ari garen une hontan. Ze, ez zekiat hi, baina ni urduri nagok oso. Lehen aldi orok izan ohi duen dardara soinean diat irakurlearen aurrean nere korapiloak biluzten hasi nauken hontan.

Hala ere, ez dok lenengo aldixa elgoibarko euskerian inguruan berba itxen doula. Sarritxan saiatu gaitxuk etxian entzundakua gure esanetan jartzen. Baina hik esaten duan moduan etxakixau gure arbasuen euskeriaz berbetan. Beno, akaso jakin bajakixau, baina etxakuk batere natural ataratzen. Pena bat? Etxakak zetan. Pena bat baterez itxia izango zuan, eta hori zorionez, etxuat uste ezagutuko dounik mingaina dakaun bitxartian.

Globalizazioaren sasoi hontan batuaz idazten jarraitu beharko diagu, ulertuko ez gaituzten beldurragatik baino gehiago gure erosotasunagatik. Zeren, nik uste soberko deskafeinatua askoz goxoagoa, dastagarriagoa ateratzen zaigula, nahiz eta jakin, kafe-kafea bizigarriagoa, autentikoagoa dela.

> HIZKUNTZA BATURA DA ETA HIZTUN BAKOITZAK ZATITXO BAT BESTERIK EZ DAUKA
>
> B. Dupriez

## Zorionak Jon Lizarralderi

Hamaika larunbat igaro dituzu urtean zehar..., mila ordu sartu dituzu dantza munduan..., eta esaera zaharrak dioen bezala, "ereindako haziak eman du bere fruitua".

Entsegu bat eta beste bat..., haserre bat eta beste bat..., txapelketa bat eta beste bat..., eta ligaxka bukatu eta gero, finalean zure dantzari guztiak oholtza gainean ikusi ondoren, Elgoibarko herriari erakutsi diozu urtean zehar egindako lanak eman dizula merezitako poza.

2005-2006ko txapelketan zure neskek lortutako emaitzak ahaztezinak izango dituzu, nahiz eta uneren batean lortutakoa baino gehiago espero izan. Bi sailetan Euskadiko Txapeldun gelditu ondoren eta finalean lehenengo eta hirugarren postuak lortu eta gero, zure dantzariez harro egongo zarela ziur gaude.

Asko luzatuko ginateke eskerrak ematen esateko daukagun guztia idatziko bagenu, beraz, labur-labur idatziko dugu esan beharrekoa.

Zorionik beroena dantzari eta gurasoen partetik. Jarraitu orain arte bezala, jarraitu zure dantza munduan, zure dantzariei urrats berriak erakusten, zure herria dantza munduan murgiltzen eta jakin zurekin izango gaituzula behar duzunean.

**Dorleta Fernandez, Maria eta Arantxa Ferreiro, Nerea Badiola, Itziar Aldalur, Amaia Astigarraga eta gurasoak**

## Gipuzkoako futbolaren batzordea? Ez dut tutik ulertzen

Joan den asteburuan hiru eskutitz oparitu zizkiguten hainbat egunkaritara zuzendariari bidalitako eskutitzen sailean, Fernando Tapia diputatuaren eta neure aurka eraso eginez, eta baieztapen horiei erantzunez zenbait zehaztapen egin nahi nituzke.

Gure eredua inposatzea leporatzen digute eta guk, ordea, legealdi osoa daramagu negoziatzen eta, gainera, eskola kirolaren dekretu berrian eta Real Sociedad elkartearekin ditugun aurre akordioetan futbolak aspaldidanik izan dituen hainbat eskakizun jaso ditugu, besteak beste, oinarrizko futbol eskolak arautzea, oporraldietan txapelketak antolatzea, eta parte hartzeko futbolean 11ko futbolean aritzeko aukera ematea. Hori dena egin arren, gure jarrera inposatzailea eta erasokorra dela uste dute. Galdera bat bururatzen zait orain: zeintzuk ez dute bere jarrera batere aldatu prozesua abiatu zenetik, zeintzuk ez dute amore eman? Hori al da akordioak lortzeko bidea?

Eskutitzean diotenez, Athletic izango omen da gure politikaren onuradun bakarra; gu, berriz, Realarekin aurreakordioak lortzen ari gara Realak berak aurkeztu zigun eredua oinarritzat hartuta. Realaren ereduak Athletic al du onuradun? Batzordeak, behintzat, hori dio, baina gustatuko litzaidake gogoraraztea Batzordea osatzen duten klubetako bat gaur egun Osasuna taldearekin hitzartuta dagoela eta beste bat Athleticekin hitzartuta egon dela.

Batzordearen iritziz, gure eredua baztertzailea da. Nire ustez, baztertzailea da gaur egun zenbait klubek egiten duten politika. Zer gertatzen da aukeratuen taldean sartzen ez diren mutikoekin? Kalean gelditzen dira, beste kirol batzuetara jotzen dute edo, okerrago, kirola egiteari uzten diote. Guk parte hartzeko ibilbidearen aldeko apustua egiten dugu, hala, inor ez da geldituko nahi duen kirola egin ezinda, dena dela, bere gaitasun fisikoa edo, kasu honetan, futbolean aritzekoa.

Horrez gain, aurkeztutako eredu hori Foru Aldundiak eta Real Sociedad elkarteak bakarrik adostu omen dugu. Ez dute esaten, ordea, dagoeneko 31 klubek akordio horren aldeko jarrera adierazi dutela, eta idatziz adierazi ere, horien artean, S.D. Eibar, Real Unión eta Tolosa futbol taldeek. Ez al da izango Batzordeak egia absolutuaren jabetzat duela bere burua? Realak eredu hori hitzartutako klubei aurkeztuko die eta klub horiek onartu eta babesten badute bakarrik jarriko du abian.

Horregatik eta beste hainbat gauzagatik, ez dut tutik ulertzen

**Iñaki Ugarteburu**
**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari nagusia**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.420 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## TXALO

• Lojantzi eskubaloi taldeko neskei zorionak: "Mailaz igotzerik lortu ez bazuten ere txalo bat merezi dute jokalari, entrenatzaile eta baita Iruñeara animoak ematera hurbildu ziren zaletuek ere. Ezin ditugu ahantzi dirulaguntzak eman dizkiguten enpresak ere: Rotulos Zabaleta, Tecnifuelle, Industriak Seirak eta Sport Kemen. Babesleak eta gainerako dirulaguntza gabe ezin izango genioke igoera fase honi aurre egin. Mila esker". Bestalde, guraso talde batek "Cometel" nesken taldea txalotu nahi du, joan zen igandean Oñatin egindako partida bikainagatik.

## KEXAK

• Asteburuetan Madalako semaforoa deskonektatu egiten dute: "Asteburuetan San Lazaro Egoitza eta Madalako parkea bitartean dagoen semaforoa deskonektatu egiten dute, denbora guztia argi naranja edukitzen du. Jende asko ibiltzen da ingurune honetan, eta arriskutsua da. Jubilatuek arazo handiak dituzte bidea gurutzatzeko, izan ere, autoak sekulako abiaduran etortzen dira eta inor ez delako gelditzen. Semaforoa asteburuetan ere martxan jartzea eskatuko genuke".

• Usua tabernakoek oinezkoen bidea oztopatzen dute mahaiekin: "Errekako barandila ondoan jartzen dituzte mahaiak eta pasiaran ibiltzen den jendeari traba egiten die. Parkean leku nahikoa dago eta ibai ondoko gunea libre utzi daiteke". Udaletxera deitu dugu, eta esan digutenez, Usuakoek 12 mahai jartzeko baimena daukate, baina lekua ez dago zehaztuta.



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

## komikia



# 1956-2006

# Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

## Udala eta helduen euskalduntze-alfabetatzea (II)

Aurreko astean Udalak sektore honi eskaintzen dizkion laguntzak ikusi bagenituen, gaurkoan beste hiru atalak ikusiko ditugu:

**2) Udalak prestatutako kanpainak eta ikastaroak:**

• 1989an, "*Umeen nutrizio kanpaina*" transmisio kanpaina prestatu zuen. 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduta zegoen. Kanpainarekin batera, gurasoen euskalduntze eta alfabetatzea bultzatzeko klaseak antolatu ziren.

• 1997ko urrian, "*Ahoz aho, belaunez belaun*" kanpaina antolatu zen Debabarreneko udalekin batera. Kanpainarekin batera, bi euskaltegiekin elkarlanean, gurasoen euskalduntze-alfabetatzea bultzatzeko ikastaroak antolatu ziren.

• 1998ko urrian, euskaltegiekin elkarlanean oraingoan ere, gurasoei zuzendutako ikastaroen eskaintza berezia egin zuen estreinakoz Udalak. Harrez gero, urtero egin izan da eskaintza berezi hau.

**3) Proiektuei eskainitako babesa:**

Elgoibarren helduen euskalduntze-alfabetatzea bultzatzeko, hiru urtez (2000-2002) martxan izan zen ARIGERA proiektua bere osotasunean babestu zuen Udalak. Gainera, babesteaz gain, eragile funtzioak ere bete zituen.

**4) Udal langileen prestakuntza:**

1991n hasi zen Udala zeregin honetan, eta gaur egun ere bere horretan mantentzen da. Langile gehienek euskara lanorduetan ikasteko aukera izan dute, eta batzuk barnetegietara ere joan dira. Beste batzuk, berriz, trebatze saioak jaso dituzte lana euskaraz egin ahal izateko. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten gehiengoak lortu du bere maila, eta gaur egun langile guztiek aholkularitza eta zuzenketa zerbitzuak erabil ditzakete.



## SONIA REVERT

AEK EUSKALTEGIko IKASLEA

***18 urterekin hasi zen Sonia Revert euskara ikasten, baina lanean hasi zenean utzi egin zuen. Bizitzak baina, euskaltegira bueltatzera bultzatu zuen berriro, izan ere, umea eduki zuenean, berarekin euskaraz hitz egitea nahi zuen.***

**• Noiz hasi zinen euskara ikasten?**

18 urte nituenean pare bat ikastaro egin nituen eta oinarri txiki bat lortu nuen. Lanean hasi nintzenean, utzi egin nuen.

**• Erabiltzen al duzu euskara zure eguneroko bizimoduan?**

Seme-alabak eduki arte ez nuen erabiltzen. Ohiturak aldatzea oso zaila da, eta askotan gainera, gauzak gaizki esateko beldurra izaten nuen, lotsa ematen zidan eta erderaz egiten nuen. Nire seme zaharrenak 6 urte egin zituenean, euskara maila oso ona zeukala konturatu nintzen eta ezingo nuela berarekin euskaraz egiten jarraitu. Berak animatu ninduen euskaltegira joateko eta berriro hasi nintzen euskaltegian. Bi urte daramatzat eta gustura nabil.

**• Noiz arte jarraituko duzu euskara ikasten?**

Orain erronka pertsonal moduan hartzen dut euskara. gustura nago lortu dudan mailarekin, irakurtzeko, ulertzeko eta hitz egiteko gai naiz, baina gehiago ikastea nahi dut. Aurten 2. mailako azterketa egiteko matrikula egin dut. Ez dakit gaindituko dudan, baina saiatuko naiz, behintzat. Oraindik jendearekin hitz egiteko zailtasunak ditut: umeekin eta Ikastolako irakasleekin egiten dut euskaraz, baina gainontzekoekin kostatu egiten zait.

**• Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?**

Ondo, baikorra naiz. Ume gehienek badakite euskaraz eta gainera erabiltzen dute. Nik uste dut ez dela galduko.







Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

## [AKORDATZEN NAIZ]



### JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Minigonia»

Minigonia modan ipiñi zanian, reboluziua izan zan. Makiña bat etxetan eman deu gai honek hasarria eta eztabaidia. Eliziak honen kontra ere demaseko indarra egin zaban. Transiziua oraindik allegau gabe zaguan, eta gurasuak ezin zeben kanbixo hori onartu. Neri geruago tokau jata alabakin, eta ondo ikusten dot. Baiña ni umia nitzanian, oso rarua zan, eta gurasuentzako, askoz gehixago. Eliziak laga baleu libertade pixkat, dana erretzagua izango zan.

Zinian demaseko zentsuria zaguan. Eibarren gehixago permititzen zeben. "3R" kategorixako pelikulia zaguala, eta danak juten giñan haura ikustera, ia zer azaltzen zan: ez zan ezer ikusten. Emakumiak billuzik azaltzia eta hori ikustia, infernura jutekua zan. Gaur egunian ere rebistetan urtetzen dira neskak billuzik, eta elizia gaur egun ere horren kotra dago. Gaur, hala ere, ezin dau zentsurau. Eskerrak!



## [GURE BERBAK]

### Esaldi osagarri batzuk (2)

*Aurreko astekuari jarraittuz (izenburua gaizki zatorren han), gaurkuan ere ELA atzizkidun esaldi batzuk ekarriko dittugu hona; baiña gaurkuak ez dira balekuak (izartxua jarri diuet okerrak diraneri): hiztun batzuek hala darabille gaur egun, baiña bestela erabilli bihar dira (Euskaltzaindiak ere hala dio, gaiñera):*

- Kontuz Patxirekin, hasarre daguala!
- Kontuz platerarekin, berua daguala!
- Hain gezurtixa da, iñok ez diola sinisten.
- Aitxa, politxa dala nere soiñeko berrixa!

*Beste era batera eman bihar dira horrek: bakoitza bere adieraren arabera:*

- Kontuz Patxirekin, hasarre dago eta!
- Kontuz platerarekin, berua dago eta!
- Hain gezurtixa da, iñok ez dio sinisten.
- Iñok ez dio sinisten: hain da gezurtixa.
- Aitxa, politxa da nere soiñeko berrixa, ezta?

*Jesus Mari Makazaga*



**ESKERTZA**

2006ko maiatzaren 13an hil zen
***Eusebia Iriondo Barrutia**ren sendiak,*
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**

2006ko maiatzaren 13an hil zen
***Nicolasa Iriondo Loyola**ren sendiak,*
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## FELIX LODOSO ORGANUJOLEA

# «Europa iparraldean organoaren beste kultura bat dago»

*Edonor ezin da organista izan. San Bartolome parrokian ere ozta-ozta kabitzen bada, nola sartu instrumentu erraldoia gure poxpolu kaxa etxeetan! Eta bestetik, ez dirudi jotzeko batere erraza, eskuak eta hankak erabili behar direnez, koordinazio handia behar baita. Organojole ikasketak hasi aurretik, gutxienez, 5 urte egin behar dira pianoa ikasten. Felix Lodosok ez du bere burua organistatzat, baina makina bat urtean jarri die doinua San Bartolome parrokiako elizkizunei. Gaur egun bera eta Julian Iriondo txandatzen dira organoa jotzeko. Instrumentu ikusgarri bezain ezezagun hau hobeto ezagutu nahi izan dugu.*



**► Zenbat urte daramatzazu Parrokiako organista moduan?**

Noiz hasi nintzen gogoan ez dudan arren, 15-16 urte egin nituen lehen etapa batean. Berez, ni ez naiz organista, kasualitatez iritsi nintzen parrokiko organoa jotzera. Ignacio Bereziartuak 56 urte egin zituen parrokiako organista, 1902tik 1958ra bitartean, eta haren ostean 3 organista oso onak pasa ziren Elgoibartik. Ignacio Irureta azpeitiarra izan zen onena, Bachen obrak jotzen maisua zen. Haren ondoren apaiz gazte bat etorri zen, hau ere trebea, Jose Antonio Ezeiza. Barakaldotik etorri zen beste apaiz batek ordezkatu zuen hau, Migel Forcada azkoitiarrak. Hirurak hilda daude. Hauen ostean sartu nintzen ni. Eibarko Bandako zuzendari hasi nintzenean (6 urte eta erdi egin zituen), ordea, ezin denera iritsi: banda, korua, organoa... zerbait laga behar, eta Julian Iriondok hartu zuen nire lekukoa.

**► Egun biok txandatzen zarete organoa jotzeko.**

Bai. Julianek ere lan gehiegi zuela-eta laguntza eskatu zidan. Horrela, biok txandan-txandan jotzea adostu genuen, batek hilabete batean eta besteak hurrengoan.

**► Elizkizun guztietan jotzen al da organoa?**

Hiletetan, eta zapatu eta domeketako mezetan jotzen dugu. Hiletetan organoaren doinuak beste ikutu bat ematen dio azken agurrari. Urteko une puntualetan ere jotzen da: konfirmazio garaian, Pazko Egunean, e.a. Herriarentzako zerbitzu gisa eta dohainik egiten dugu. Noizean behin organo kontzertuak ematea litzateke beste aukera bat, baina ez dago egoerarik onenean eta dirua behar da ganoraz konpontzeko.

**► Ba al da Elgoibarren organoa ikasten ari den norbait?**

Badago oso ondo moldatzen den neska gazte bat, orain lagata dauka, baina baliteke egunen batean itzultzea. Nire ilobak, Alberto Gonzalezek, ere interesa agertu du eta hasi da zer edo zer ikasten.

**► Organorako konposatzaile gustuko bat?**

Juan Sebastian Bach (1685-1750) "teklatuaren printzipe" gisa ezagutzen zuten teklatua jotzeko zuen abileziagatik eta organorako pieza kantitate itzela laga zuen idatzita. Barrokoa izan zen organoaren urrezko garaia eta bertan ezagutu zuen





zabalkunderik handiena. Alemanian berebiziko garrantzia hartu zuen instrumentu honek eta organojole, konpositore eta organo egile mordoa atera ziren bertatik, tartean Bach. Hala ere hor daude Cesar Franck, Dupree, Maye, Mozart, Brams... eta eskola frantses modernoan ere konpositore asko daude.

► **Frantzian eta Alemanian ei daude organo ikusgarrienak?**

Bai, eta ez hori bakarrik, organistek beste "status" bat daukate herrialde hauetan. Organo jole postua lehiaketara ateratzen da eta haueri etxea eta guzti jartzen diete, baita autoa aparkatzeko lekua gorde ere. Esan nahi dut, beste kultura bat dagoela Europa iparraldean.

**[ «Inprobisatzeko gaitasuna garrantzitsua da» ]**

► **Eta Euskal Herrian, ba al dago organo ikusgarririk?**

Bai, badira batzuk. Gipuzkoan oso onak daude. Santa Maria elizan Azkoitian, Ataunen, San Bizente parrokiakoa Donostian, Loyolan... Cavaille-Coll etxeko zenbait organo ere badaude. Aristide Cavaille-Coll (1811-1899) frantziarra XIX. mendeko organo egilerik handiena izan zen. Berak eginiko organuak stradivarius bibolinekin parekatu daitezke, nolabait. Konpositoreei dagokienez, Jose Luis Frantsezena azpetiarra nabarmendu behar da. Azpeitiko bandako zuzendaria eta Azkoitiko organista da une honetan. Organoak egin eta konpontzen dituzten bi atisau ere badaude Azpeitin; Bernal eta Korta. Artzai Oneko organoa konpontzen ari dira orain, 12.000 hodi dituen organoa!

► **Eta Parrokiako organoa, nork egina da?**

Aquilino Amezuak egina da. Organo mota ezberdinak daude: erromantikoak, iberikoak, barrokoak. Elgoibarkoa erromantikoa da, baina iberiko motako tronpetak gaineratu zitzaizkion. Hamabost joko edo erregistro ezberdin ditu (batzuk 100 joko izatera ere iritsi daitezke) eta ehun urtetik gora izango ditu, baina organo normal xamarra da.

► **Zaila al da organua jotzea?**

Instrumentu guztiekin gertatzen den moduan, ondo jotzea da zaila. Hasteko, belarri ona eta intuizioa behar dira. Hauez gain, inprobisatzeko gaitasuna garrantzitsua da, elizkizunean zehar dauden tartetxoak girotzen jakin behar baita. Hiru pentagrama (melodia, laguntzak eta fondoak) batera jo edo interpretatu behar dira eta hori egiteko gai ez dago jende asko. Gainera, elizkizunetan apaizari tonoa ere eman behar diogu, hark jarrai dezan.

## HISTORIA APUR BAT



Organoa txinar jatorriko instrumentua dela uste da. Erromatarrek ezagutu zuten eta XII. mendean Eliza Katolikoak bereganatu zuen elizkizun zerbitzuetako lagungarri gisa.

Luzera ezberdinetako hodietan (5 cm-tatik 7 metrora) zehar airea pasaraziz lortzen dira soinu ezberdinak organoan. Haizezko instrumentu gisa sailkatu dute, baina azpikategoria berri bat sortu behar izan zen instrumentu familian dagokion lekua egiteko, alegia, teklatu eta hodidun haizezko instrumentuen azpikategorian aurki dezakegu organua. Erregistro edo soinu ezberdinak sor ditzake: tronpetak, flautak, bibrazioak, e.a. luze bat. Hauek palanka sistema baten bitartez maneiatzen dira. Aintzina esku indarrarekin mugitutako hauspoekin lortzen zen beharrezko haizea. Egun bonba elektriko batek hartu du hauspoen lekua.

## [ PROTAGONISTA ]



### JabiAznal

Jabi Aznal debarrak beteko du Unai Zulaikak lagatako jarlekua eta bera izango da Ezker Batuako zinegotzi berria. Deban bizi arren, urte asko daramatza Elgoibarren lanean, eta oso ondo ezagutzen du herria eta baita herritarrak ere. Dagoeneko hasi da herriko mugimenduetan parte hartzen, besteak beste, Elgoibar Bizirik Herri Plataformako prentsaurrekoan izan zen joan zen astean. Datorren urteko hauteskundeeri begira, herriaren eta herritarren alde lan egiteko asmoa dauka. Unai Zulaika alboan izango du, behar duen laguntza guztia eskaintzeko.

## [ NOTIZIA ]

# Ekainean hasiko da Miski Elkartearen kanpaina berria

Iazko kanpainan lortutako diruarekin, bi hilabete egin ditu Gemma Agirregomezkortak Peruko Cusco herrian. Gauza asko egiteko aukera izan du, eta bere helburuak beteta bueltatu dela kontatu digu. Miski Elkarteak haurren eskolatzean egiten du lan, batez ere, eta dagoeneko, 500 lagun baino gehiago eskolaratu dituzte. Honetaz gain, osasun arazoak dituzten pertsonei laguntzen saiatzen dira: "aurtengoan burmuineko tumore bat kendu berri dioten neskatxa bati laguntzen saiatu gara. Umeak eskolatzeaz aparte, honelako hainbat ekintza ere egitea da gure nahia".

**Aurtengo kanpaina**

Ekainean jarriko da martxan Miskiren kanpaina berriko lehenengo fasea. Dirua



biltzeko errifak salduko dituzte, eta San Bartolomeetan egingo da zozketa. Gemma Agirregomezkortak laguntza eskaini dioten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Bestalde, elkarteko kide izan edo Peruko umeren bat apadrinatzeko interesa dutenek, Gemma Agirregomezkortarekin jarri daitezke harremanetan.

## [ ZENBAKIA ]

Bi txandatan banatuta, 65 lagunek egin zuten lehenengo jaunartzea joan zen domekan. Maiatzaren 28an emango diote amaiera ikasturteari bi ekintza berezirekin: batetik, Ama Birjinari lore eskaintza egingo diote eta bestetik, kristau ikasbidean 6 urtez ibili direnek bataio berritzea jasoko dute.

## [ ARGAZKIA ]



Txorizalea da Sabin Oregi. 30 txuerri (etxe-txolarre) edukitzera iritsi da, baina gauzarik harrigarriena zozo batek egin dio; txoriei jaten emateko erabiltzen zuen azukre potoan egin baitio kabia zozoak. "Dirudienez, gainerako txuerrietaz babesteko egingo zuen kabia bertan, sekula ez baitut horrelakorik ikusi, guztiz ezhoikoa da. Egundoko ezustekoa hartu nuen potoaren inguruan belarra eta adartxoak ikusi nituenean, barrura begiratu eta habia ikusi nuen". Argazkian ikusi dezakezuen moduan jadanik hasi dira zozokumeak jaiotzen.

# Ostegunetako azokako 13 saltzaile salatu ditu Udalak



Iazko uztailean Marivi Agirregomezkorta alkateak merkadilloko 13 saltzaile denuntziatu zituen, salmenta postua elizpean jartzeagatik: "Epaileak deliturik ez zegoela esan zuen, eta dena konpontzeko bidean zegoela, abenduaren 27an, Marivi Agirregomezkortak epailearen erabakiari errekurtsoa jarri zion". Elgoibar Bizirikekoen ustez, Udalak ez du konponbiderik nahi. Beste saltzaile bati 600 euroko isuna jarri diote kontzentrazio bat antolatzeagatik. Gastu hauek ordaindu ahal izateko 5.000 errifa salduko dituzte. Saria 1.000 euroko erosketa txekea izango da.

**Einbiouk azokaren leku aldaketa atzeratzeko eskatu du**

Einbiouk, bestalde, merkadilloaren leku aldaketa atzeratzeko eskatu dio Udalari. Euren esanetan, "merkadilloa Plaza Txikian dagoenetik herri guztia pozik dago, saltzaileak ondo ari dira lanean, eta herriko giroa piztu da". Hori dela eta, merkadilloa Sigmara eraman aurretik, gaia aztertu eta eztabaidatzeko eskatu dute: "akordiorik lortzen ez bada, datorren urteko hauteskunde programan sar dezala alderdi bakoitzak merkadilloaren kokalekua eta herriak erabaki dezala".

## Ubitarteko obren proiektu berria egin behar du Jaurlaritzak



Hasi dira berriz lanean Santa Ana kaleko errotondan, baina badirudi oraindik arazo guztiak ez daudela gaindituta. Eusko Tren enpresatik jakinarazi digutenez, Jaurlaritzak ez dauka oraindik Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko baimenik: "Trenbidea eta etxebizitzen artean distantzia minimoa gorde behar da, desdoblamenduren bat egiteko aukera egon dadin". Proiektua aldatu arte, beraz, soto eta garajeak bakarrik egin ahal izango dituzte. Hala ere, Visesatik 2008rako etxebizitzak bukatuta egongo direla esan digute.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak

Aurten Udako Euskal Unibertsitateak 27 ikastaro eskainiko ditu Baionan (uztailaren 10etik 14ra), Eibarren (uztailaren 3tik 7ra) eta Iruñean (uztailaren 17tik 23ra). Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die beka gisa, langabetu eta ikasleei. Informazio gehiago Udaleko Euskara Zerbitzuan (Nafarroa Plaza 3, 943 74 43 66). Ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 18an amaituko da. Informazio gehiago www.ueu.org helbidean.

### Zaharren egoitzetan udako egonaldiak

Urtero bezala, uztailean eta abuztuan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko programa antolatu du foru Aldundiak. Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi duenez, maiatzaren 31n bukatuko da programa honetan parte hartzeko epea. Hortik aurrera jasotako eskariak plaza hutsen bat betetzeko hartuko dira kontuan.

### Merkatu Plazako zozketa

60 euroko hiru txeke banatu dituzte hilabete honetan Merkatu Plazako saltzaileek. Justa Garcia, Petri Correa eta Kontxi Elizburu izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute.



**Estresa eta mobbing-a dira euskal langileen artean baja gehien eragiten dituzten arrazoiak.**

# Izaten al duzu estresik lanean?

**MARISA LARRAÑAGA**
Garbitzailea
56 urte



“Lanera joan eta etxeko lanak egitea oso estresantea da emakumeentzat. Estresatzeko arrazoi bikoitza daukagu. Lanari neurria hartu behar zaio, baina oso zaila da.”

**CONCHI CALDERON**
Garbitzailea
55 urte



“Nire lanak hasieran estresatzen ninduen, baina dagoeneko hartu diot neurria. Etxeko lanek estresatzen naute gehiago. Gustura hartuko nituzke opor batzuk.”

**SANDRA ARENAS**
Garbitzailea
30 urte



“Kolonbian baino lasaiago egiten da lan hemen. Ordutegia eta lan giroa hobeak dira, ez dago estresatzeko arrazoirik. Hango trafikoa ikustea estresatzeko nahikoa da.”

**ISMAEL ARENAS**
Aurrejubilatua
57 urte



“Jubilatuta nago, baina lehen estresatzen nintzen. Egungo egoera gogorragoa da, ez dago segurtasunik, gaur hemen, bihar han eta horrek presio handia eragiten du.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Eutanasia legeztatu egin beharko litzateke?

**BAI %92**

“Aspaldi behar zuen legeztatuta. Norbera da norbere buruaren jabe, eta norberari dagokio erabakitzea norbere buruarekin zer egin. Bizitza duina eta heriotza duina merezi ditu gizakiak.”

**EZ %8**

“Ez, heriotza azkena da, bizitza dagoen artean, itxaropena dago. Gertukoak hiltzen ikustea munduan dagoen gauzarik tristeena da, eta nahita egitea, oraindik tristeagoa.”

Datorren asterako.... Ezkontza zibilek %11 egin dute gora eta erlijiosoen erdira iritsi dira
**Iritsiko al dira, noizbait, ezkontza zibilak erlijiosoen parera?**

Bidali SMS bat:
**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**
**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.




Datorren astean 2 lagunentzako bina sarrera zozketatuko ditugu.

# Liburu gustukuenak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren Ikastolan



Elgoibar Ikastolako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek hauteskundeak izan zituzten liburu gustukuenak aukeratzeko helburuarekin. Euskaraz argitaratutako liburuak eta ilustratzaileak izan ziren hautagai. Ekintza hau, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko egiten diren jardueren artean kokatzen da. Bide batez, ikasleek bozka prozesua ikasteko aukera izan zuten, benetako partaide izan ziren, izan ere, aukeraketa egiteaz gain, lehendakari, bokal eta idazkari lanetan ere, eurek aritu baitziren.

**Lehen Hezkuntzan "Jara" nagusi**

Lehenengo Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Jasone Osoro idazle elgoibartarraren "Jara" liburuari eman zioten boto gehien. Gainontzeko emaitzak hauek izan ziren: Haur Hezkuntzan Joxantonio Ormazanalen "Lehoiak eta kilkerrak", Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailan "Asterix eta Obelix, LH 3. eta 4. mailan Joxantonio Ormazabalen "Aitona parapentean" eta Bigarren Hezkuntzan Harkaitz Canoren "Belarraren ahoa" aukeratu zuten. Bestalde, ilustratzaile gustukoena Mikel Valverde izan zen.

## Irlandako North East institutuarekin elkarlanean hasiko da IMH

Ipar Irlandako North East Institute - NEIkoek IMH ezagutu eta etorkizunean ikastetxe bien arteko ikasle eta irakasleen arteko elkartrukeak aztertu dituzte. Honela IMHn, irakasle irlandarrek ingelesez eman ahal izango dituzte ikasgai batzuk eta gure ikasleek lan praktikak eginfo dituzte han.

Bestalde, joan zen astean Gorbea inguruko herrietako jubilatu talde batek bisitatu zuen IMHko museoa. Urtero bezala, aurten ere bisita ugari jaso ditu.





## Giro bikaina Atxutxikrosean

Elgoibarko Izarrako Autxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, Atxutxikrosa izan zen joan zen zapatuan. Haur Hezkuntzako umeentzako ekitaldia izan zen eta ume mordoak hartu zuen parte. Korrika egin aurretik, eskulanak izan ziren protagonista Plaza Handian: ume bakoitzak bere dortsala egin zuen, animoak emateko banderinak eta aurpegiak margotu zituzten. Ondoren, 30 ume inguruk hartu zuten parte krosean. Antolatzaileek esan digutenez, giro oso ona izan zen, eguraldia zela-eta, apur bat aurreratu behar izan zuten ekitaldia, baina azkenean, dena ondo atera zen.



## [ IRTEERAK ]



### Pilar Ikastetxekoak Xoxoten izan ziren

Pilar Ikastetxeko LH 6. mailakoek hiru egun pasatu dituzte Xoxoteko aterpetxean. Izarraitz inguruan ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten: jolasak, tirolina, eskalada, Erlo mendira igo... eguraldi bikaina izan zutela kontatu digute, eta oso gustura ibili omen dira.

*2005-06 denboraldia jokatu gabe pasatu duen arren, Iban Zubiaurre protagonista handia izan da. Mendaroar gazte honek denbora gehiago pasatu du aurten epaitegietan berdegunean baino, baina badirudi txarrena pasatu dela. Liga Txapelketa bukatu da, eta datorrena hobea izatea espero du Ibanek. Aurredenboraldia Atletich-en egiteko ilusioa duela esan digu.*

# IBAN ZUBIAURRE

## FUTBOLARIA

# «Beste talde batera joan izan banintz, Realaren jokaera desberdina izango litzateke»



**Zer moduz dago Iban Zubiaurre une honetan?**
Momentu honetan lasai nago, txarrena pasatu dela uste dut. Juizioak eta sententziak izan dira momenturik txarrenak. Gainera, Liga bukatu da eta futbolean jokatzeko izaten nuen inbidia hori ere, bukatu da.

**Epaileak 5 milioi euroko sententzia jarri zuen. Nola jaso zenuten epaia?**
Espero genuena baino askoz altuagoa izan zen. Sententzia atera zen unean Bilbon nengoen aitarekin eta sekulako ostikada hartu genuen. Errekurtsoa jarri genuen, diru kantitate hori handiegia zela adieraziz. Realak bere aldetik ere, beste errekurtso bat jarri zuen kantitatea txikiegia zelako. Ez dakigu zer gertatuko den. Batzuk diote uztailerako emango dutela azken epaia, baina abendurako izango ote den ere entzun dut. Auskalo!

**Realaren jokabideak harritu al zaitu?**
Egia esanda, asuntu hau guztia Astiazaranen zuzendaritzarekin negoziatu genuen, eta beraiekin hartu nuen sekulako dezepzioa. Zuzendaritza berriak egoera honekin topo egin du, eta Realaren interesak defendatu ditu, besterik ez. Azkenean konturatu naiz ez zutela akordiorik nahi; epaitegietara iristea eta Athletic taldea inplikatzea zen euren nahia.

**Gai honek horren luze joko zuenik espero al zenuen?**
Ez. Behin baino gehiagotan elkartu gara bi alderdiak eta konponduko zela uste genuen, akordio hitza askotan ateratzen zen. Seguru nago Athletic izan beharrean, beste talde bat izango balitz ez zela hau gertatuko. Reala eta Athletic-en artean sekulako pikea dago, bakoitzak bere harrobia defendatzen du eta gogorra izan daiteke harrobiko jokalari bat beste taldera joatea. Baina Astiazaranen zuzendaritzarekin akordio batera iritsi eta gero, ez zuten esandakoa bete.

**Zein zen akordioa?**
Nik Realarekin beste urtebeterako kontratua neukan eta eurek beste urtebeterako berritzea nahi zuten. Nik bi urte eskatzen nituen, bestela ez nuela berrituko. Orduan, diru kantitate baten truke aske utziko nindutela adostu genuen eta nik beste talde batera joateko askatasuna izango nuke. Beste talde hori Athletic zela jakin zutenean, dena bertan behera gelditu zen.

**Pentsatu al duzu inoiz futbola utzi eta beste zerbait egitea?**
Beroaldiren batean bai, gauza asko pasatu zaizkit burutik, baina hotzean pentsatuta, banekien denboraldi hau bukatu ostean, berriro hasiko nintzela jokatzen.

**Elgoibarrekin entrentazen hasi zinen, eta gero Durangora...**
Bai, entrenatzeko talde bat behar nuen eta hona etorri nintzen, baina Realak Elgoibarrekin tratua daukanez, arazoren bat egon zitekeen, eta badaezpada, Bizkaia aldera joatea erabaki nuen. Durangoko Kulturalean oso gustura nago, ezagun asko dauzkat.

**[«Egoera gogorra izan da, asko sufritu dugu, amak batez ere»]**

**Nolakoa da zure egun bat?**
Goizez nire kontura egiten dut kirol apur bat, bizikleta estatikoa edo korrika egitera joaten naiz eta arratsaldez Durangora joaten naiz entrenatzera edo preparatzaile fisiko batekin ibiltzen naiz.





**Zerbaitetaz damutzen al zara?**
Ez, ez naiz damutzen, gauzak ez ditut intentzio txarrez egin. Hau guztia honela aterako litzatekeela jakingo banu, beharbada Realean egongo nintzateke urtebete, nahiz eta ez jokatu. Gogorra da talde batean egon eta ez jokatzea, baina hau dena gertatuko zela jakin izan bagenu, ez genuke honela jokatuko.

**[«Gipuzkoako muga gainditu eta Athletich-en jokatzea da nire nahia»]**

**Nolakoak izan dira azken hilabeteak?**
Oso gogorrak. Uste genuena baino gehiago luzatu da dena; asko sofritu dugu, amak batez ere.

**Mendarok, nola hartu zaitu?**
Ondo, denok ezagutzen gara eta ez dut arazorik izan. Gertukoek ondo hartu naute.

**Negarrik egin al duzu?**
Bai, sententziak atera direnean edo epaiketa egunetan negar dezente egin dut bakardadean. Ez ditut nire sentimentuak asko kanporatzen eta zapatuetan kalean ikusi nautelako, ondo nagoela uste zuen jendeak. Sufrimentua barrutik eraman dut.

**Egoera honek erakutsi al dizu zerbait?**
Bai, alde batetik benetako lagunak zein diren ikusi dut. Realean lagun onak dauzkat: Riesgo, Boris, Xabi Prieto... Bestalde, psikologikoki gogorragoa izaten ikasi dut.

**Presio mediatikoa gogorra izan da?**
Bai, epaitegi aurrean edo Mintxetan kamarak ikustea ez da erraza. Mobileko zenbakia aldatu behar izan nuen, zoramena zen. Gipuzkoan medio batzuk indar handia dute eta egurra eman didate.

**Etorkizunera begira?**
Nire asmoa Gipuzkoako muga gainditu eta Athletic-en jokatzea da. Uztailean hasiko da aurredenboraldia eta bertan jokatzen hasteko desiatzen nago.

# txApela bUruAN...



GANT - **BELGIKA**

## MaiderOtal

Hiru urte eta erdi daramatza Maider Otalek Belgikan, Gant izeneko herrian. Hasiera batean Arkitektura ikasketa amaierako proiektua egitera joan zen Erasmus programarekin, baina bere egonaldia apurtxo bat luzatu da. Bere mutila ere Belgikara joan zen eta egun, doktoretza egiten ari dira biak bertan. Oso gustura dauden arren, oso argi daukate ikasketak bukatu bezain pronto, maletak egin eta Elgoibarrera itzuliko direla. Hala ere, oraindik pare bat urte Belgika aldean pasatuko dituztela kontatu digu. Gaur egun, estudio batean dihardu lanean, eta hirigintza alorreko master bat ikasten ere ari da. Ez dauka, beraz, aspertzeko denborarik!

**Nolakoa da Belgika?**
Belgika hiru lurraldetan banatuta dago: Flandes, Balonia eta Bruselas. Nik gehienbat Flandes ezagutzen dut. Euskal Herriarekin konparatuz, paisaia oso desberdina da, ez dago ia mendirik. Hala ere, hiri eta herrixkak, kanalak eta eraikin historikoei esker xarma berezia dauka. Leku ugari dago bisitatzeko eta ahalik eta gehien bidaiatzen saiatzen gara, bai mugaz barne eta bai kanpo.

**Nolakoak dira bertako biztanleak?**
Denetarik dago baina oso ondo hartu gaituzte. Hizkuntza ez da inoiz oztopo bat izan. Ganten hizkuntza ofiziala flamenkoa bada ere, ia denek hitzegiten dute ingelesa. Hala ere, ikasketekin jarraitzeko flamenkoa ikasi behar izan dugu eta gaur egun flamenkoz ere nahiko ondo moldatzen gara.

**Zer egin zitzaizun zailena?**
Senideak eta lagunak urrun uztea, batez ere. Denborarekin gu bezala dagoen jendea ezagutu dugu eta lagun talde majoa daukagu. Poliki-poliki hemengo martxara ohitu gara, baina fetxa seinalatuetan asko gogoratzen gara; jaiak, urtebetetzeak...

**Bisitan joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?**
Atzerrian ezagunenak diren hiriak: Brujas, Amberes, Bruselas, Lobaina eta bereziki Gante! Pare bat irteera ere antolatuko nituzke, Baloniako Ardenetara eta Holanda hegoaldeko kostaldera.

**Zer botatzen duzu faltan?**
Gehienbat etxekoak eta lagunak, baina baita paisaia eta Euskal Herriko bizimodua ere. Hemengo ohiturak oso desberdinak dira.




merezi duzu
EROSKI bidaiak
merezi duzu
ESKAINTZA BEREZIA LANZAROTERA!! 299
Ekainaren 1etik 15era.Irteerak Bilbotik ostegun edo larunbatetan.
Egonaldia apartamentuan (ostatua bakarrik). Tasak ez daude prezioan sartuta.
San Bartolome, 11 ELGOIBAR Tel. 943.74.46.56

# biluzik

## sexologia txokoa



Eider Goiburu [Sexologoa]

## Homofobia eta transfobiaren nazioarteko eguna

***"Hi! Marikoia al haiz? Mutilak ez ditek negarrik egiten!..." "nik errespetatzen ditut, neregana hurbiltzen ez diren bitartean..." "homofobia? Jada ezkondu daitezke eta! Eta baita haurrak adoptatu ere! Zer gehiago nahi dute?..." "Ikusi al ditun Ane eta Itziar? Bollerak ditun!..." "bakoitzak erabakitzen du zer izan nahi duen..." "entzun al duk Aritz marikoia dela?"...***

*Maiatzak 17, homofobia eta transfobiaren kontrako nazioarteko eguna. Zergatik? Sarreran idatzitako esaldiak, homosexual eta transexualek egunero entzun eta jasan beharreko hitzak dira.*

*Orain, batzuk kalera ateratzen direnez, onartua dagoela dirudi, jende gehienak errespetatzen duela dio. Benetan hala dela uste duzue? Onartzen dugula? Eta txisteak? Eta zergatik mutil batek beste bat iraintzeko marikoia erabiltzen du? Eta zergatik ez dugu nahi gure inguruko inor homosexuala edo transexuala izatea? Imajinatzen al duzue neska bat eta mutil bat larunbat gau batean taberna batean muxukatzen, laztantzen, bata bestea sobatzen egoteagatik irainak jaso behar balituzkete? Edo kaletik eskua emanda pasiatzeagatik?*

*Nire lagun batek zioen bezala: "ez gaituzte errespetatzen, batzuk toleratu egiten gaituzte, baina nik ez dut tolerantziarik nahi. Honek, besteak nire gainetik daudela esan nahi baitu eta ez errespetatzen gaituztela."*

*Orain dela 15 urte, 1990eko maiatzak 17an homosexualitatea eta transexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik betirako ezabatuak izan ziren.*

*Orain, egun hau aldarrikatu behar dugu gure buruetatik homofobia eta transfobia betirako ezabatu eta desager daitezke.*

gazte informazioa

### BEKAK

**DONOSTIAKO UDALAREN EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK 2005-2006**

2005-06 ikasturtean HABEren erregistroan izena emanda duten euskaltegi homologatu nahiz libreetan euskara ikasteko diru-laguntza publikoak. Baldintzak: 16 urtetik gorakoa. Donostian erroldatuta ikastaroa amaitu baino sei hilabete lehenagotik. Egoitza ofiziala hirian duen zerbitzu-enpresa batean lan egitea. Gutxienez maila bat gainditzea. Eskatzaileak gutxienez eskolen %85era joan behar du. Epea: Neguko ikastaroak (urria-ekaina): Urrian hasten diren ikastaroak: irailaren 26tik urriaren 31ra bitartean. Otsailean hasten diren ikastaroak: otsailaren 1etik 28ra bitartean. Barnetegiak eta ikastaro ez homologatuak: hasiera-dataren ondorengo bi asteetan. Udako ikastaroak (uztaila-iraila):Ikastaroa hasi aurretik. Autoikaskuntza: Urtean zehar, hasiera-dataren ondoren bi asteetan. Informazioa: 943 483750

### LANA

**TXISTUKO IRAKASLE LANPOSTU 1 BARAÑAINGO LUIS MORONDO ESKOLAN**

Barañaingo Udalan Luis Morondo Udal Musika Eskolan Txistu irakasle lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Baldintzak: Musika Kontserbatorioek luzatutako irakasle titulua edo, irakaskuntza gaietarako, doktore, ingeniari, lizentziatu titulua edo baliokidea. Epea: 2006-06-02. Informazioa: 948 265558

**KONTULARI-EKONOMISTA LANPOSTU 1 OLAZTIKO UDALEAN**

Olaztiko Udalean Kontulari-Ekonomilari lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Baldintzak: Ekonomia edo Enpresa Zientzietako diplomadun titulua. Epea: Ekainak 5. Informaz.: 948 562446

**ARKITEKTO 1 ZIERBENAKO UDALERAKO**

Zierbenako Udalak Aparejadore/Arkitekto bat, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez kontratzeko izango diren hautatzeko-probetarako oinarriak kaleratu ditu. Nahitaezkoa ez den 3. hizkuntz eskakizuna. Baldintzak: Arkitekto tekniko edo aparejadore titulua. Epea: Maiatzak 28. Informazioa: 94 6365336

### EKINTZAK

**FAMILI EUSKALDUNETAN EGONALDIAK**

Urrats Euskaltegia antolatuta. Baldintzak: 8. urratsa edo baliokidea gaindituta duten ikasleak. 18 urtetik gorakoak. Iraupena: Hilabete 1 edo 2, 2006ko uztailetik irailera. Epea: Maiatzak 31. Informazioa: 943 465593. Balioa: 300 euro hilabetea.

### LEHIAKETAK

**ELHUYAR FUNDAZIOAREN IV. DOKTORETZA TESIEN SARIA**

Basque Research web gunearen bidez abiarazi du. Baldintzak: 2005. urtean EAEko, Nafarroako edo Iparraldeko unibertsitateetariko batean onartutako doktoretza-tesi baten laburpena aurkeztea. Zientzia eta teknologiaren ingurukoak. Euskaraz, gazteleraz, ingelesez edo frantsesez. Epea: 2006-05-31. Informazioa: 943 363040

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461
5 Asteartetik ostiralera 16:00-19:00

# AMAIA NOGUERO

KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIOARAKO
UDAL BULEGOKO ARDURADUNA

# «Telefono konpainiaz aldatzeak sortzen ditu erreklamazio gehien»



*Homo sapiens izateari laga eta homo kontsumitzaile izatera eraman gaitu eboluzioak. "Bezeroak beti du arrazoia" esaera ezaguna, ordea, ez da beti betetzen kontsumoaren gizartean. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan 481 kontsulta eta 32 erreklamazio jaso zituzten 2005ean. Etxebizitzekin loturiko zalantzak izan dira elgoibartarren kezka iturri nagusia, kontsulten %40a, eta erreklamazio gehien, erdia, telefono konpainiek jaso dituzte.*

**► 481 kontsulta eta 32 erreklamazio 2005ean. Ohiko zifrak al dira?**

Bulegoa ireki zenetik (1988ko otsaila) erabiltzaileen kopurua igo, eta azken bizpairu urteetan egonkortu egin da. Kontsumitzaileak ezer erreklamatu aurretik informazio eske etortzera ohitu zirenetik, gainera, erreklamazio kopuruak beherantz egin zuen duela urte batzuk, baina aurten piska bat igo dira, batez ere, telekomunikazio alorreko erreklamazioen ondorioz. Oro har, hobeto informatuta datoz: "horrela dela uste dut, baina ezer egin aurretik egiaztatu egin nahi nuke" esanez datoz asko.

**► Zein dira erreklamazio ohikoenak?**

Telefono konpainiaz aldatzearen ondorioz sortutakoak. Alta emateko ez dago arazorik, telefono dei bat nahikoa da, eta aldiz, baja emateko hainbat traba daude. Telefono konpainia berrien sorrerak konpetentzia eta publizitate bonbardaketa izugarria ekarri ditu berarekin. Promozioak kontaezinak dira, bai telebistan edo zuzenean etxera deituta, eskaintza eta tarifen berri emanez. Ezer sinatu aurretik alde on eta txarrak ezagutu behar dira. Askok ez dakite zer kontratatu duten ere, kontratuok ez baitira irakurtzen Nire aholkua: tarifak idatziz bidaltzeko eskatu eta baita baja eman izanaren egiaztagiria ere.

**► Etxebizitza da kezka iturri nagusia.**

Errentamendu kontratuen inguruko kezkak dira ohikoenak; aintzinako kontratuak, hauen iraupena, nola eguneratu, e.a. Etxebizitzen salerosketan konstruktoreek emandako aurrekontratuekin ere etortzen da jendea, klausula batzuk ulertzen ez dituela-eta, ezer sinatu aurretik aholku eske. Hipoteka kreditu aukera ezberdinen berri ere galdetzen digute. Iraupen luzeko kontratuak dira, eta noski, ezin da lehen urteko eskaintzaren disdirarekin itsutu. Etxebizitza eraiki berrien akabaera akatsen inguruko kontsultak ere gero eta sarriagoak dira.

> **«Jendea gero eta informatuago dator kontsumitzaileen bulegora»**

**► Zer beste kontsulta jaso dituzue?**

Garantiekin loturiko kontsultak nabarmendu dira aurten, 2003an lege berria sartu baitzen indarrean. Elektrotresna txikien inguruko zalantzak izan dira gehienak. Herriko komertzioek erreklamazio gutxi jasotzen dituzte normalean, eta beraiekin erlazio ona dugu. Komertziora erreklamatzera joan aurretik kontsumitzaile moduan dituzten eskubideen (produktuak nola itzuli, beherapenak...) berri jakitera etortzen da jendea hona. Oso positiboa deritzot jarrera honi. Gremioen arloan, aurrekontuak idatziz ez eskatu izanak sorrarazten du arazorik gehien. Gure aholkua: idatzizko aurrekontua eskatu, beste gremioekin konparatu eta faktura gorde, noski. Etxebizitza poliza eta ibilgailuen aseguruekin zerikusia duten kontsultak ohikoak dira. Gainera, jendeak ez ditu aseguruak ulertzen, nahiko konplexuak baitira.

**► Forum Filatelico eta Afinsa iruzurra igarri al da Elgoibarren?**

Bai, Elgoibarren bada kalteturik. Jaurlaritza Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartearekin bildu da eta kontratu, errezibo eta dokumentu guztiak batzeko eskatu diete kaltetuei. Zenbat kaltetu dauden eta diru kopuruak zehaztu ostean, Kontsumitzaileen Elkartearen bitartez demanda kolektibo bat egitea da asmoa. Presio gehiago egin ahal izateko tresna da, inori ez diot aholkatzen gerra bere aldetik egitea. Luze joko du arazo honek eta lasaitasuna mantentzea beharrezkoa da.

AURRESKU ETA NESKATXENA TXAPELKETEN FINALAK

# Maria Ferreiro Euskadiko Neskatxena Txapelketako txapeldun



Euskadiko Gazte Mailako Aurreskulari eta Neskatxena Txapelketako finalak joan zen asteburuan jokatu ziren. Neskak Legazpin lehiatu ziren eta Haritz EDT.ko dantzariak primeran aritu ziren. Maria Ferreirok barruan zeukan guztia hustu zuen Legazpiko oholtza gainean eta Euskadiko Neskatxena Txapelketako txapeldun berria dugu, 7 eta 11 urte bitartekoen mailan. Itziar Aldalur Ligako irabazle gisa aurkeztu zen finalean, baina 7. postuarekin konformatu behar izan zuen. Honek ez dio merituri kentzen egin duen denboraldiari. Nerea Badiola 8. postuan sailkatu zen. Dorleta Fernandez ere Ligako irabazle gisa iritsi zen Legazpira 11 eta 15 urte bitartekoen mailan, baina 3. postuan amaitu zuen azkenean. Bai Itziarrek eta bai Dorletak Ligako irabazleen trofeoa jaso zituzten. Neskek aurten egin duten txapelketak aipamen berezia merezi du, 10 txapelketatik 6 irabazi baitituzte, eta baita podium-eko hainbat postu lortu ere. Maiatzaren 27an, nagusien mailako Euskadiko Gipuzkoar Erako Aurresku Txapelketa jokatuko da Pasaian. Gazte mailako irabazleek beren doaiak erakusteko tartetxoa izango dute txapelketaren ondarrean. Eta txapelketa ETBk grabatuko duenez, Arantxa Ferreiro dantzan ikusteko aukera izango da, telebistaz bada ere.

Mutilei dagokienez, Errenterian jokatu zen gazte Mailako Aurreskulari Txapelketa. Honako hauek dira elgoibartarrek lorturiko emaitzak: Mikel Zuñiga (7. postua), Asier Garmendia (13. postua), Asier Odriozola (13. postua) eta Itoitz Vitores (15. postua). Josu Espilla 7. postuan sailkatu zen nagusiagoen mailan.

## Ongarri Zine Klubak irailera arte jaitsiko du pertsiana

"Good night and good luck" George Clooney Hollywoodeko zine izarrak zuzendu duen filmarekin emango dio amaiera Ongarri Zine Klubak 2005/2006 denboraldiko zine emanaldiei. Maiatzaren 25ean, eguenean (21:30), izango da zine klubak antolatutako azken filma ikusteko aukera. 16 filma proiektatu ditu Ongarrik denboraldi honetan, "zinemagile ezagun eta finkatuenak gehiengoa, baina hasiberrien estreinaldiek ere izan dute lekurik. Produkzio europearrak nagusitu dira, baina bi japoniarrei ere egin genien lekua, eta maiatza amaieran, AEBak, Frantzia eta Japoniak elkarlanean ekoiztutako bi filma emango ditugu" adierazi digute Ongarritik. "Bestalde, genero ezberdinei kabida ematen saiatu gara eta ez dira falta izan: road movie-ak, dokumentala, animazioa, gertakizun errealetan oinarritutako fikzioa, e.a. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu hilabeteotan zine klubeko emanaldietara hurbildu diren zinezaleei". Irailean, Donostiako Zinemaldiarekin batera itzuliko da Ongarri filma berriekin.



## Juan Carlos Perezen kontzertura joateko sarreren zozketa

Azkoitiako Maxixeatzen Euskara Elkartea X. urteurren ospakizunetan murgilduta dago. Hau dela-eta, hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Deigarrienetako bat, Juan Karlos Perez, "Itoitz" talde mitikoko abeslariak eskainiko duen kontzertua izanik. Gainera, gonbidatu berezi bat izango du mutrikuarrak, Bernardo Atxaga idazle asteasuarra, hain zuzen ere. Maiatzaren 27an, zapatuan, Baztartxo antzokian izango da. BARREN aldizkariak bi lagunentzako lau sarrera zozketatuko ditu "Bai ala Ez" atalaren bitartez. Egon adi!



EKAINERAKO KIROL JARDUERAK

# Tenisa, pilota, igeriketa... ekaina kirolaz blai iritsiko da



Ekainean kirola egin eta ikusteko aukera paregabea izango dugu, Udal Kirol Patronatuak ekitaldi mordoa antolatu baititu. Ekainaren 3an, Eskualdeko Futbol 7 Txapelketaren edizio berria hasiko da Mintxetan, eta egun berean, areto futboleko Gaztetxoen mailako Gipuzkoako Txapelketaren azken fasea jokatuko da kiroldegian. Ekainaren 4an, domekan, berriz, Olaizaga Kiroldegiko eta Mintxetako ateak herritar guztientzat zabalik egongo dira, "Ateak Ireki Kirolari" izeneko jardunaldiaren baitan. Nahi duen orok Olaizaga Kiroldegiko zerbitzu guztiak (saunak, squasha, frontoi txikia, muskulazio gela) dohainik erabili ahal izango ditu. Horretaz gain, igerilekuetan ur-parkeaz gozatu ahal izango da, bertan, umeentzako jolas puzgarriak jarriko dituzte-eta. Bitartean, Mintxetan hainbat atletismo proba (altuera eta luzera jauziak, 60 metroko lasterketak) burutuko dira hurbiltzen direnentzat. Bestalde, Trinitate Jaien egitarau barruan, Ordago enpresaren Pilota Jaialdi bikaina ikusteko aukera izango dugu Ikastolako frontoian. Partida nagusian, Mikel Goñi (Goñi II.a)-Olaran eta Ubera II-Zezeaga izango dira aurrez aurre. Ekainaren 10ean, Tenis Jaiaren edizio berri bat burutuko da, bertan, jolasak, zirkuituak eta txapelketak egingo dira.

### Baino denboraldiaren inaugurazioa

Ekainaren 15ean, aurtengo bainu denboraldia inauguratuko da Mintxetako aire libreko igerilekuetan

## Nora Santiago Gipuzkoako txapeldun 500 metrotan

Mintxeta A.T.ko antxintxikariek Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartu zuten maiatzaren 14an, Mintxetan. Nora Santiago izan zen atletarik aipagarriena, 500 m-ko lasterketa irbaziz. Altuera jauzian 6. postua lortu zuen Ignacio Ortiz de Urbinak. Egun berean, Amañako Herri Krosean Mintxetako gainerako atletek emaitza bikainak lortu zituzten: aurre benjamin mailan Lara Urkiri eta Ioar Urkiri nagusitu ziren. Lorea Santiagok benjamin mailan irabazi zuen, Leire Basterretxeak alebin mailan eta Borja Diezek infantil mailan.

## Ander Loiola txapeldunorde San Migelgo Bolo Txapelketan

Sanmigeldarrak dira Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako dominatzaile nagusiak. Sailkapen nagusiko lehen bi postuak auzotarrentzat dira. Xabier Loiola dago lehen postuan sei jardunalditan 25 txirlo bota ostean eta Angel Ibarluzea dago bigarren postuan 24 txirlorekin. Abantaila hau areagotzeko aukera paregabea zuten joan zen zapatuan, San Migelgo bolatokian jokatzen baitzen 6. jardunaldia, baina garaipenak ihes egin zien auzotarrei, Jose Antonio Nuñez plaentxiarrak irabazi baitzuen San Migelgo saioa. Ander Loiola sanmigeldarra sailkatu zen bigarren postuan. Eta Jose Irusta eta Unai Loiola auzotarrak 4. eta 5. postuetan, hurrenez hurren. Hurrengo jaurtialdia Ezozin (Soraluze) jokatuko da, eta datorrena, maiatzaren 27an, San Pedron.





## Arrasatek abantaila txikia hartu du Herriarteko Txapelketan

Arrasateko pilota taldearen aurka 1 eta 2 galdu arren, aurrera egiteko aukerak bere horretan mantentzen dituzte Elgoibarko pilotariek. Izan ere, bi partida galdu arren, markagailu oso estuak eman ziren joaneko hiru partidetan, eta ezer ez dago erabakita, nahiz eta arrasatearrek etxean, zaletuen aurrean, jokatzeko abantaila izango duten. Elgoibarko kadeteek 17 eta 22 galdu bazuten, jubenilek emaitza berdina lortu zuten, baina beraiek izan ziren 22. kartoira iritsi zirenak. Nagusien mailan, berriz, 21 eta 22 galdu zuten Ansola eta Loiolak, Axpe eta Uribarri arrasatearen aurka. Markagailu hauekin indarrak parez-pare daudela igarri daiteke. Itzulerako norgehiagokak zapatu arratsaldean jokatuko dituzte Arrasaten. Elgoibartarrek bi partida irabazi eta ahalik eta tanto gutxien jaso beharko dituzte kanporaketa gainditu nahi badute.

### MENDI ITZULIA MAIATZAREN 21EAN

# 200 lagunek eman dute izena Elgoibarko Mendi Itzulian



Dagoeneko 200 lagunek eman dute izena domeka honetan, hilaren 21ean, egingo den Elgoibarko Mendi Itzulirako. Mendizaleek parte hartzeko erakutsi duten interesa ikusirik 250 parte hartzaileri lekua egitea erabaki du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Hortaz, egunean bertan ere izango da izena emateko aukerarik, hala nahi izanez gero (Errosario kaleko egoitzan). Gogoan izan goizaldeko 6:00etan emango zaiola hasiera Plaza Handitik, Elgoibar mendiz-mendi inguratuko duen 38 kilometroko itzuliari. Amaieran, Merkatu Plazako azken solairuan egingo den bazkarian parte hartzeko aukera izango dute mendizaleek.

Bestalde, Elgoibarko Mendi Bizikleta Taldeak itzulia txirrindu gainean egiteko aukera eskainiko du. Hauek goizeko 8:00etan aterako dira Plaza Handitik.



## Aixako haitzulora irteera zapatu honetan

Leizarpe Taldeak Aixako haitzulora (Itziar) irteera antolatu du. Goizeko 9:00etan abiatuko dira Leizarpek Santa Klara kalean duen lokaletik eta itzulera 16:00ak inguruko izango dela kalkulatzen dute. Irteera hau 16 urtetik gorakoentzat pentsatuta dago eta izena emateko honako telefono hauetara deitu behar da: 650 012 400 (Iban) edo 646 244 474 (Joserra).

## Kadete mailako txirrindulari lasterketa zapatu honetan

Kadete mailako XVII. Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari lasterketa jokatuko da zapatu honetan, hilaren 20an. Txirrindulari gazteak arratsaldeko 16:30ean aterako dira Plaza Handitik eta helmuga Santa Klara kalean kokatuta egongo da. Guztira 48 kilometroko ibilbidea izango du probak. Bestalde, maiatzaren 28an, jubenil mailako XXVI. Elgoibarko Hiria Saria jokatuko da.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Getxo 0 - Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 2 - Amaikak Bat 0 (1. erreg.)
Elgoibar 1 - Indartsu 0 (Jub.)
Elgoibar 6 - Anaitasuna 3 (Kad.)
Elgoibar 0 - Añorga 3 (Inf. A)
Elgoibar 2 - Sanse 7 (Inf. B)

**ESKUBALOIA**

Pulpo 26 - Tecnifuelle 29 (Senior mut.)
Aloña Mendi 24 - Cometel 25 (Jub. nesk.)
Tecnifuelle 29 - Tolosa 22 (Senior. mut.)
Udarregi 19 - Olalsa 17 (Inf. nesk.)
Aterpe 16 - Andoain 18 (Inf. nesk.)
Urola 47 - Tecnomeca 21 (Kad. nesk.)
Lojantzi 16 - Eharialdea 22 (Sen. nesk.)

**ESKU PILOTA**

Herriarteko Txapelketa
Elgoibar (Arrib./Liz.) 17 - Arrasate 22 (Kad.)
Elgoibar (Arriz./Txu.) 22 - Arrasate 17 (Jub.)
Elgoibar (Ansola./Loiola) 21 - Arrasate 22 (Nag.)
Debarroko Torneoa
Eibar 7 - Lagunak (Iriondo/Loiola) 22 (Jub.)
Arrasate 22 - Lagunak 9 (Kad.)
Lagunak Torneoa
Odriozola 18 - Loiola 8 (Aleb.)
Amesti 18 - Bereziartua 1 (Aleb.)
Bereziartua 18 - Rojo 16 (Aleb.)
Conde 18 - Odriozola 6 (Aleb.)
Amesti 18 - Iriondo 5 (Aleb.)
Astigarraga 11 - Arakistain 18 (Benj.)
Maiztegi 18 - Bollar 16 (Benj.)
Idigoras 18 - Larruskain 9 (Benj.)
Errasti 18 - Arriola 8 (Benj.)
Loidi 18 - Mendibil 16 (Benj.)
Bollar 17 - Montes 18 (Benj.)
Zubiaurre 18 - Agirrebeña 17 (Benj.)

## [ AGENDA ]

**ESKU PILOTA** Ikastolan
Debarroko Torneoa
**Barixakua, 19**
21:30 Lagunak – Bergara (Nag.)
**Domekia, 21**
12:00 Lagunak – Eskoriatza (Kad.)
12:45 Lagunak – Bergara (Jub.)

**ESKUBALOIA** Kiroldegian
**Zapatua, 20**
16:30 Tecnifuelle – Egia (Senior mut.)
**Domekia, 21**
11:00 Cometel – Urola (Kad. nesk.)
12:30 Lojantzi – Aiala Zarautz (Senior nesk.)

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxea salgai Sigman. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. **607 253 909**
- Pisua salgai Merkatu Plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara itxia. Bizitzera sartzeko moduan. **943 74 15 96/677 389 601**
- Pisua salgai Errosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. **943 740265 (gauez deitu)**
- Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 74 84 48/636 57 11 11**
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Guztiz berritua. **630 28 63 63**
- Etxea salgai Sigman. 2 logela, sukalde-jangela, barra amerikarra, sala, komuna. Berritua, berogailua eta altzariekin. **676 94 57 82**
- Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldea jantzita, su bajua, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **670 251 263**
- Pisua salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, sukalde-jangela, 2 komun, egongela, garajea eta ganbara. **659 80 10 32**
- Pisua salgai Errosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 135.230 euro. Adosteko. **646 75 80 91**

### ALOKAIRUA

- Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. **610 45 85 52**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. **943 53 17 54**
- Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukaldea, egongela, bi komun, 3 logela, 40m$^2$ko terraza. **655 723 678**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. **638 716 987**
- Logela bat hartuko nuke alokairuan. **697 78 52 78**
- Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. 2 logela. **943 20 30 83**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Lokal bat alokatzen da erdialdean. 80m$^2$. Hutsik. **646 161581**
- Garaje marraduna alokatzen da Aterpe behean. **695753699**

## [ BESTELAKOAK ]

- Karabana salgai. Adria markakoa. Prima 350. Egoera onean. Matrimonio ohea, bi litera, komuna, sukaldea. 3.000 euro. **943 20 30 83/ 605 766 911**
- Mendiko bizikleta salgai. Canondale. Egoera onean. Rebisioa pasatuta. Karbonozko manilarra. **658 74 32 49**
- Kotxeko llantak saltzen ditut. 17 pulgadatakoak. Egoera onean. **665 72 62 71**
- Hozkailua eta berogailua salgai. Egoera onean. **695 711 836**
- Martxan dagoen janari denda saltzen da San Bartolome kalean. **943 74 12 26**
- Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilterraza. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko. **635 73 58 15**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 € . Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 € . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Mutila edozein lan egiteko prest: obrak, mekanika lanak... **685 785 921**
- Emakumea lanerako prest: garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzen. **943 74 03 67**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. **685 730 604**
- Neska gaztea lanerako prest: kamarera, umeak edo nagusiak zaintzen... **638 716 987 (Patricia)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **699 609 190**
- Bi neska lanerako prest: umeak zaindu, garbiketa lanak... **609 965 932/943 53 18 35**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639 020 180**
- Neska umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. **626 57 17 07**
- Emakumea orduka erropak plantxatzen lan egiteko prest. **943 03 36 05**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. **943 03 36 05**

### ESKAINTZA

- Durangoko Berbaro Euskara Elkarteak udalekuetarako aisialdiko begiraleak eta zuzendariak behar ditu. Uztailerako. **94 620 19 18 (Rakel)**
- Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. **943 74 14 61**
- Kamareroak eta sukaldariak behar dira tabernan lan egiteko. **652 778 260 / 652 77 82 10**
- Kamareroa behar da tabernarako. **943 74 12 30**
- Kamareroa behar da taberna lasai batean lan egiteko. Adinak ez dauka garrantziarik.. **669 09 60 71**
- Kamareroa behar da. **699 005 135**
- Umea zaintzeko emakumea behar da. Kotxea beharrezkoa. **652 71 65 64**
- Mutil gaztea behar da. Igeltseroa edo 1. edo 2. mailako ofiziala. **605 70 52 04**

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- Arrasateko enpresak **kamio gidaria** behar du. Erref. 162006005716
- Bergarako enpresak **fruta dendarako saltzailea** behar du. Erref. 162006006165
- Mendaroko enpresak **industria manteinu lanetarako teknikaria** behar du. Erref. 162006006260
- Azkoitikiko enpresak **mandrinadorea** behar du. Erref. 162006005376
- Bergarako enpresak **harategirako saltzailea** behar du. 162006006167
- Eibarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162006005421
- Arrasateko enpresak **delineatzailea** behar du. Erref. 162006003669

> Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentrura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## ABISUAK

- Klarinetea galdu dut. Maleta eta guzti. Plaza inguruan. **943 74 10 77 - 943 74 17 43**
- Urrezko pultsera galdu nuen apirilaren 20an. Kolore desberdinak ditu: berdea, marroia... **943 74 38 99**

# [ZORIONAK]



▸ Zorionak amama **Justa!** Gehiago bete ditzazula! muxu potolo bat zure panpinatxoaren partez.



▸ Zorionak **Marcos** bihar 6 urte egingo dituzulako. Anaia Asier eta familiako guztien partez, ondo pasa!



▸ Zorionak **Unai** zure 8. urtebetetzean. Segi orain arte bezala! Muxu handi bat, bereziki, Aitor, Iñigo, Ion, Irati eta Mikelen partez.



▸ Zorionak **Ander Urain** maiatzaren 15ean 6 urte egin zenituelako. Gurasoak, arreba Oihane, aitxitxa-amama eta osaba Jabier.



▸ Zorionak **Ander** hilaren 22an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, arrebaren partez.



▸ Zorionak **Enara** domekan 12 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▸ Zorionak **Garazi** igandean 3 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▸ 18 urte!! Ongi-etorri adin nagusidunen mundura. LF-A.



▸ Zorionak **Julen!** Ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxutxuak Ikastolako laguntxoen partez.



▸ Zorionak **Iria** gaur bi urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Aitanaren partez.



▸ Mila kilo zorion etxeko bitxito txikixari. Iker eta familixako guztien partez.



▸ Zorionak **Iker!** 10 urte elkarrekin ez da gutxi. Gurasoak eta anaia Aitor.



▸ Aupa **bikote!** Heldu da eguna! Ondo pasa bihar eta hemendik aurrera datozen egunetan.



▸ Zorionak **Iratxe** eta **Judith** urteak egin dituzuelako. Aitaren partez, musu handi bana.



▸ Zorionak **Irene,** gure maiatzeko lorea.

▸ Zorionak **Arantxa eta Jose Luis** maiatzaren 11n zuen alaba Lorea jaio zelako. Angel, Judith eta Iratxeren partez.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estalkiak
Zoluen kolokazioa
Leihoak: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

## [ OKINDEGIA ]



21 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 19 | Zabaleta |
| 20 | Yudego |
| 21 | Yudego |
| 22 | Ibañez |
| 23 | Bidasolo |
| 24 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 25 | Fernandez |
| 26 | Yudego |

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

## [ 19 BARIXAKUA ]

**18:30 IKASTOLAKO JAIALDIA**
Ikastolako frontoian
**22:00 BIDEO FORUM-A**
Hizlaria: Eskarne larrinaga
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea E. E. T.
**22:15 "HALA ERE..." DANTZA IKUSKIZUNA**
Taldea: Ballet Contemporaneo de Eib
Herriko Antzokian
Sarrera: 5 euro

## [ 20 ZAPATUA ]

**9:00 "AIXA"KO HAITZULORA IRTEERA**
Irteera: Santa Klara kaleko Leizarpeko lokaletik
16 urtetik gorakoentzat
Izena emateko: 650 012 400 (Iban) edo 646 244 474 (Joserra)
Antolatzailea: Leizarpe Taldea
**16:30 XVII. ELGOIBARKO LAGUN TALDEA SARIA TXIRRINDULARI PROB**
Irteera: Plaza Handitik
Helmuga: Santa Klaran
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

URKIDI
AHOLKULARITZA
Liberty Aseguruak
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

**11:00 IDOTORBERA (SAN PEDRO) IRTEERA**
LH 1, 2, 3 eta 4ko ikasleentzat
Informazioa: Elgoibarko Izarran
**16:00 REFLEXOLOGIA: MASAJE KALIFORNIANOA, ERLAXATZEKO TEKNIKAK ETA SENDABIDE NATURALAK**
Aubixa baserrian
Informazioa: 943 74 19 09

## [ 21 DOMEKIA ]

**6:00 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA**
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M. E.
**10:00 MENDI IRTEERA**
Nora: Erlo (1.026 m.) mendira
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola
**16:30 "AMA BAT NIRETZAT!" ANTZEZLANA**
Taldea: Porpol Antzerki Taldea
Debabarreneko XXII. Eskolarteko antzerki erakusketaren barruan
Herriko Antzokian

## [ 22 ASTELEHENA ]

**19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO IRAKASLEEN KONTZERTU PEDAGOGIKOA**
Musika Eskolako auditorioan

## [ 23 MARTITZENA ]

**8:30 ISCAR UPGRADE JARDUNALDIAK IMHN**
Gaia: Iscarren ekarpen berriak abiadura handiko txirbil arroketan
Antolatzaileak: Iscar eta IMH
Inskripzioa: 935 946 484 edo yluque@iscarib.es (Yolanda)

## [ 24 EGUAZTENA ]

**18:30 BERTSOZALE ELKARTEAREN KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA**
Herriko Antzokian
**8:30 ISCAR UPGRADE JARDUNALDIAK IMHN**
Gaia: Iscarren ekarpen berriak abiadura handiko txirbil arroketan
Antolatzaileak: Iscar eta IMH
Inskripzioa: 935 946 484 edo yluque@iscarib.es (Yolanda)

## [ 26 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
Plaza Handian
**19:00 DBH 4KO IKASLEEN AGUR FESTA**
Pilar Ikastetxean
**19:00 SAHARA ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Egilea: Iñaki Bergara
Kultur Etxean Ekainaren 10era arte

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«Firewall»**
20, zapatua: 19:30-22:15
21, domekia: 19:30-22:15
22, astelehena: 21:30
**«Good night and good luck» (Z.K.)**
25, eguena: 21:30
**«Volver»**
26, barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Plan Oculto»**
19, barixakua: 19:30-22:15
20, zapatua: 17:00-19:30-22:15
21, domekia: 17:00-19:30-22:15
22, astelehena: 19:30-22:15
23, martitzena: 19:30-22:15
24, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«Memorias de una Geisha»**
19, barixakua: 19:30-22:15
20, zapatua: 17:00-19:30-22:15
21, domekia: 17:00-19:30-22:15
22, astelehena: 19:30-22:15
23, martitzena: 19:30-22:15
24, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Firewall»



**Zuzendaria: Richard Loncraine.**
**Antzezleak: Harrison Ford, Paul Bettany.**
Informatika segurtasunean aditua den Jack Stanfieldek (Harrison Ford) Seattlelgo banku batentzat lan egiten du. Gero eta bizkorragoak diren "hacker"engandik datu baseak babestea da bere egitekoa. Bizi maila altuko familia osatzen dute bere emazte arkitektoak eta bi semeek. Jackek sortu duen babes sistemak akatsgabea dirudi, baina lapurrek aurkituko dute nondik urratu. Bill Cox lapurra hilabete luzez Jack eta bere familiaren itzal bihurtu da.

### «Good night and good luck» (Z.K.)

**Zuzendaria: George Clooney**
**Antzezleak: David Strathairn, Robert Downey Jr.**
50 hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetako telebistako kazetaritzaren hastapenetan kokatzen da Thriller politiko hau. Edward R. Murrow albiste aurkezlea, Joseph McCarthy senataria eta Jarduera Antiamerikarren Batzordearen artean sortu ziren liskar eta eztabaidak erakusten ditu aktore lanetan jarduteagatik ezagunagoa den George Clooneyk. McCarthy senatariak "Sorgin ehizan" komunistak atzeman eta zigortzeko erabili zituen modu txarrak azaleratzen saiatu zen Murrow kazetari ausarta.

# Atzera begira



**1943** urteko erretratu zahar hau **Kontxa Azkuek** laga digu. Morkaiko Mendizale Elkarteko hainbat lagun ageri dira argazkian, Urnobitza mendiko buzoiaren inaugurazio egunean. Ikusten den bezala, garai hartan ere, bazegoen gure herrian mendirako zaletasuna. Asteburu honetan, Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Elgoibarko Itzulia egingo da. Partehartzaileak Urnobitzatik ere pasatuko dira euren bidean. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren mendizale hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: **Jose Luis Ajubita, Fernando Lehr ( ), Federiko Azkue ( ), Jesus Suarez.**

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Barrenetxea, Jose Zabaleta ( ),** eta **Pako Iriondo (Morkaiko M.E.ko** eta **Nafarroako Mendi Federazioko presidente ohia).**

---



**ESKERTZA**

2006ko maiatzaren 14an hil zen

***Pilar Etxabe Txurruka***ren sendiak,

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# nolako ikasketak, halako etorkizuna



## GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

| lehen zikloa | Arrasate ikasmaila | Goierri ikasmaila |
|---|---|---|
| - Makina [illegible] Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1., 2. eta 3. |
| Industria [illegible] Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | |
| Industria [illegible] Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | |
| - Sistemen Informatikaren Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | [illegible] |
| - [illegible] Informatikaren Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | [illegible] |
| Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | |
| Telematikaren Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | |

ate irekiak:

ARRASATE: [illegible]

| bigarren zikloa | Arrasate ikasmaila | Goierri ikasmaila |
|---|---|---|
| - Industria Ingeniaritza | 4. eta 5. | - |
| Industria [illegible] Ingeniaritza | [illegible] eta [illegible] | - |
| - Automatika eta Industria [illegible] Ingeniaritza | [illegible] | |
| - Informatikaren Ingeniaritza | 4. eta 5. | |
| - Telekomunikazio Ingeniaritza | 4. eta 5. | - |

## ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

| lehen zikloa | Oñati ikasmaila | Bidasoa ikasmaila |
|---|---|---|
| - Zuzendaritza [illegible] | 1., 2. eta 3. | |
| - Enpresa Zientzietan Diplomaturako Ibilbideak | | 1., 2. eta 3. |
| - [illegible] Merkataritza | | |
| Enpresa [illegible] Gestioa [illegible] | | |

ate irekiak:

OÑATI: [illegible]

BIDASOA: [illegible]

| ziklo luzea | Oñati ikasmaila | Bidasoa ikasmaila |
|---|---|---|
| Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura Ibilbideak | [illegible], 2., 3., 4. eta 5. | |
| Finantza Zuzendaritza | | |
| - Merkataritza Zuzendaritza | | |
| - [illegible] | | |

| bigarren zikloa | Oñati ikasmaila | Bidasoa ikasmaila |
|---|---|---|
| - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura Ibilbideak | 3., 4. eta 5. | |
| - Finantza Zuzendaritza | | |
| Merkataritza Zuzendaritza | | |
| [illegible] | | |
| - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura Ibilbideak | | 1. eta [illegible] |
| - Enpresa [illegible] | | |

## HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Eskoriatza

### lehen zikloa

- Irakaslea: [illegible] Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea: Hezkuntza [illegible] Espezialitatea
- Irakaslea: [illegible] Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea: Heziketa Fisikoa Espezialitatea
- Irakaslea: [illegible] eta [illegible] Espezialitatea (2. diplomatura [illegible])
- Irakaslea: [illegible] Hezkuntza Espezialitatea (2. [illegible])

### ziklo luzea

[illegible]

### bigarren zikloa

[illegible]

- Hezkuntza [illegible]
- [illegible]
- Giza Zientzietako [illegible] Ibilbideak:
  - Giza Zientzietan [illegible]
  - Giza Zientzietan Informazio eta Komunikazio [illegible]

inskripzio epea zabalik

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiliola 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta Instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta Indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com